

EGAPE IKASTOLA EUSKARAREN EGUNA2021

AMA EUSKAL HERRIA

Delikatua baitut egungo suieta
hasi aintzin egin dut zonbait gogoeta
gure arteko asko ele entzun eta,
euskaldun agertzea ez baita josteta.

Badakit askoz ere nukela hobe
nehoni ez agertu ene dolorea
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke baina ezin dut ordea.

Ama Euskal Herriaz naiz nahigabetua
uztera doalako betiko mundua
bere seme alabez abandonatua
nork barka dezake gure bekatua.

Lehen sartu zitzaizun ezpata zorrotza
zure etxe nagusi jartzean arrotza
halere ez zitzaizun gelditu bihotza
etxekoen eskutik duzu heriotza.

Zure lekua hartu zuen andereak
gurekin behar ditu pairatu bereak
amaizunarendako ez daizke hobeak
ama ukatu duten haur dohakabeak.
Ama Euskal Herriaz naiz...

Baditaike seme hok noizbait oroitzea
Ama, zu ganik izan dugula sortzea
guhaurek bilaturik zure ehorte
jasan beharra dugu gastigu dorpea.

Hilobi hontan noizbait norbait badabila
zure izaitearen herrestoen bila
lurpetik entzunen du deiadar bipila:
Hemen dago ama bat bere haurrek hila!

BERTSOA DANTZAN

Bertsoa ahoz edo paperez
bihotzaren mezulari amodiozko
hitz edo esaldi hark ditu beti ekarri
ama batek bere ttipiari norbaitek
lagunminari zoriona eta zoritxarra
negarra edo irri

Olerkiaren aurride dugu kantuaaren adixkide
bertsoak eginak ditu orain zenbait urte
ta bide plazetan edo liburuetan
eman ditu adibide utziz beti
oroitzapenean ainitz nahi eta xede

Izar eguzki goian dirdira hitzak aldiz bertsoetan
loreek bukaerak ekarri haizeak doinuak eman
izerdiarekin loturik da batek bestea eskutan
bertsolaria eta xoria beti direla airean

Bertsoa ahoz edo paperez bihotzaren mezulari
Amodiozko hitz edo esaldi hark ditu beti ekarri
ama batek bere ttipiari norbaitek lagunminari
zoriona eta zoritxarra negarra edo irri

GUK EUSKARAZ

Guk euskaraz Zuk, zergatik ez?
Euskara putzu sakon eta ilun bat zen,
eta zuek denok ur gazi bat
atera zenuzten handik nekez

Orain zuen birtutez zuen indarrez
euskara itsaso urdin eta zabal
bat izanen da eta guria da.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian euskaraz nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Zabal bideak eta aireak gure hizkuntzak
har dezan arnas, bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia zerri askara
geure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak
ez gara.Hizkuntza gabe esaidazue nola irtengo
naizen plazara,geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

GARAZIKO HERRIA

Garaziko herria benedika dadila (Bis)
Euskarrari man dio behar duen
tornua.(Bis)
Euskarra, Euskarra, Jalgi hadi
kanpora.(Bis)

Bertze jendek uste zuten ezin eskriba zaiteien
Orai dute porogatu enganatu zirela.(Bis)
.Euskara, Euskara, Jalgi hadi plazara.(Bis)

Bertzeak orok izan dira bere goihen gradora
Orai hura iganen da Bertze ororen gainera.(Bis)
Euskara, Euskara, Jalgi hadi dantzara.(Bis)

Orai dano egon bahiz Inprimitu bagerik (Bis)
Hi engoitik ebiliren mundu guzietarik.(Bis)
.Euskara, Euskara, habil mundu guzira.(Bis)